

Bizipen gogoangarrien bila



Espazio pribilegiatuak?

- Espazio pribilegiatuak (besteen aldean)?
 - Euskarabentura: haur-gaztetxoan gogoia, euskararekiko motibazioa, desira...
 - Girotze-barnetegiak: irakasle-izaerak ematen duen egonkortasuna, eskarmentu metatua... Ikasleak derrigortuta etortzea (*).
- Ikerketa-ekintza:
 - Euskarabentura – hizkuntza-mudantzen azterketa
 - Girotze barnetegien gogoeta etengabea, dinamika-bilduma... Girotze-barnetegien eraldaketa-prozesu aipatu zen. Agian kuxkuxeatzea interesatuko zaizue:
<https://soziolinguistika.eus/files/Eraldaketa-prozesuak.pdf>
- Gehienon errealitatea bestelakoa da, baina beti dago zer-ikasias.

(*) Hor ere arrakalarik al dago? Taldea joan baina haiek eskola geratzen direnen afera ez dago aztertua.



Hiruki Didaktikoa

- Hiruki didaktikoa:
 - Hezkuntza formalean: Ikaslea – Irakaslea – Materia
 - Hezkuntza ez-formalean: Haur-gaztetxoa – Hezitzailea – Dinamika
- Gertatzen den guztia hiru elementu horien arteko interakzioaren ondorioa da
- Nolako interakzioa nahi dugun:
 - Haur-gaztetxo-gaztea erdigunean
 - Hezitzailearen rola garrantzitsua: gogoa, atxikimendua, lidergoa...
 - Ekintza baino areago, modua da garrantzitsua... ZER baino areago, NOLA



Haur-gaztetxoak erdigunean


- Emozioak, harremanak, bizipenak...
- Ona da “no me gusta el euskara” berbalizatzea: lantzeko abiapuntu bat ematen du.
- Hizkuntza-lidergoak, eusle dinamikak, influentzerrak, mintzagramak... haurrekin eta gaztetxoekin ere bideratu daitezke
- Haur-gaztetxoei protagonismoa nola eman: ekintza erabaki, hezitzaile papera eman...
- Dinamika ez da helburua. Dinamika egiten dugun bitartean gertatzen dena da gakoa...



Txikitasunean handi




- Astebeteen ezin da mirarik espero, ezta hilabeteen ere.
- Hizkuntza-mudantza ez da bat-batean gertatuko, baina “hazitxo” bat utziko dugu landatuta.




Gure kezken zirkulua



- Atera diren beste gai batzuk (behin baino gehiagotan)
 - Esperientzia aberasgarriak daude, baina politika publiko integralak behar dira (eta baliabideak)
 - Eskola-segregazioak eskolaz kanpoko aisialdia ere baldintzatzen du
 - Hezitzaileen formazioa, atxikimendua, lan-baldintzak...
 - ... eta askoz gehiago.
- Gogoetatxo bat. Kezka-zirkulua vs. Eragin-zirkulua. Erradikalismo pragmatikoa.



Bihotz-diana



Gauza bat da talde gisa ikusten dena, eta beste bat norberaren grafikoa

Egon da bi hizkuntzak leku berean jarri dituztenak, baina erdigunean hizkuntzarik jarri ez dutenak ere.

Ez duzue beste hizkuntza zehaztu, baina kasuren batean nahiko erdigunean dago

Ni neu

Munduan hizkuntza bakarra balego

- 7 Galtzen aterako ginateke guztiok
- 3 Hizkuntza hori euskara izatea nahiko nuke
- 3 Elkarbizitza erraztuko liguke

Zeinekin zaude ados

- 7 Euskaldunekin beti egiten dut euskaraz
- 6 Batzuetan gustatzen zait euskaraz hitz egitea
- 0 Eskolan bakarrik egiten dut euskaraz

Euskaraz...


- 10 Nahi baino gutxiagotan hitz egiten dut
- 3 Nahi dudanean hitz egiten dut
- 0 Nahi baino gehiagotan hitz egiten dut euskaraz

Ikasle atzerritar bat eskolara etorri da eta bere hizkuntzak bakarrik daki

- 11 Nik dakizkidan hizkuntza guztietan komunikatzen saiatuko naiz
- 3 Euskaraz komunikatzen saiatuko naiz
- 0 Berari gatzelaniaz hitz egitea komeni da; beharrezkoagoa baitu

5 - Une honetan nahi dudana da...

Erantzuna ondo jartzea / Lasaitasuna / Uda izatea / Zurito bat / Oporrak / Edan / Txokolatea / Aurreko 2 galderen erantzuna / Ondo pasatu / Ardotxo bat / Izozi bat / Lasaitasuna



4 - Euskalduna da...

Lagun hurkoa / Kontsekuentea / Zorteduna / Erresistente bat / Euskaraz jakin eta maita / Euskara / Konprometitua / Euskaraz dakiena / Hemengo gauzak / Nortasuna / Euskaraduna / Euskaraz dakiena / Horrela sentitzen dena

3 - Aztoratzen naiz, estutzen naiz...

Oso nekatuta nagoenean / Gehiegizko lan kargarekin / Jendaurrean hitz egin behar badut / Euskaraz publikoan hitz egitean / Gauzak ateratzen ez direnean / Ezjakintasunarekin / Gezurren aurrean / Lanpetuegi nagoenean / Eztabaidekin / Jende arrotzarekin / Injustiziarekin / Ez badut ulertzen /

2 – Lagun bat da...

Maite nauena / Garrantzitsua / Bidelaguna / Majua / Gertutasuna, alaitasuna / Ulerkorra / Familia / Ezinbestekoa / Gertukoa / Beti dagoen pertsona / Babesleku / Mila / Gertutasuna /

1 - Euskara animalia bat izango balitz?

Arranoa (3) / Zaldia / Izurdea / Orkatza / Txantxangorria / Dortoka / Potroa / Kamaleoia / Txoria / Ipurtargia / Urtxintxa